EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

AGIRIA, EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAT % 100EAN BIRZIKLATUTAKO ETA BATERE KLORORIK GABEKO BULEGOKO PAPERAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO.

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 www.legebiltzarra.eus

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen xedea da Eusko Legebiltzarrarentzat % 100ean birziklatutako eta batere klororik gabeko bulegoko paperaren horniduraren kontratazioa arautzea.

2.- XEHETASUN TEKNIKOAK

Kontratazio honen xede den paperak zehaztapen tekniko hauek eduki behar ditu:

Baso-ustiapen jasangarrietatik datorren zuntz birjinez eta/edo zuntz birziklatuz fabrikatua izan behar du paperak (gutxienez % 70ean, kasu bietan): Aingeru Urdina ekoetiketa, FSC, PEFC edo irizpide hori bermatzen duten beste batzuk.

Funtzio anitzeko paper birziklatua, DIN A-4 tamainakoa		
1	Gramajea (ISO 536:2012 edo baliokidea)	80 g/m^2 ± 4
2	Kalibrea (UNE-EN ISO 534:2012 edo baliokidea)	≥ 100 μm
3	Opakutasuna (UNE 57063:2003 edo baliokidea)	Gutxienez, % 92
4	Distira, %-tan (UNE-ISO 2470-1: 2012 edo baliokidea) edo Distira, %-tan (UNE-ISO 2470 D65 argitasuna edo baliokidea)	≥ 70 Gutxienez, 80 ± 2,5
5	Zuritasuna, %-tan (UNE-ISO 11475:2004 edo baliokidea)	≥ 80
6	Hezetasun absolutua, %-tan (UNE-ISO 11475:2004 edo baliokidea)	≤ 5
7	≥ % 100ean birziklatua; kontsumitu ondorengo zuntz-edukia: ≥ % 65	
8	Papera zuritzeko prozesuak batere klororik gabekoa izan behar du (TCF edo PCF).	
9	100 urte baino gehiagoko iraunkortasuna eduki behar du, ISO 5630-1:1991 arauaren, Alemaniako DIN 6738:1999 [LDK 24-85] arauaren edo baliokideren baten arabera.	
10	Inprimatzeko eta fotokopiatzeko egokitasun teknikoaren betekizunak bete behar ditu, Europako EN 12281:2003 arauaren edo baliokideren baten arabera.	

Marka zuri direlakoak aurkeztuko balira, fabrikatzailearen ziurtagiria ere aurkeztu behar dute.

Bilgarriak material bakarrekoa izan behar du, eta material horrek gutxienez % 50ean birziklatutako papera edo kartoia izan behar du.

3.- HORNIDURAREN DESKRIBAPENA

3.1 HORNITZEKO LEKUA

Papera ADMINISTRAZIO-ERAIKINEAN entregatuko da, zamalanetarako gunean (Prado kalea 9, Vitoria-Gasteiz).

Era berean, paper hori eraikinaren -1 sotora eraman eta bertan jarri beharko da, horretarako prestatutako eremuan. Sotorako sarbidea karga-jasogailu batetik egingo litzateke, baina merkantzia despaletizatu egin beharko litzateke.

ADMINISTRAZIO ERAIKINA (1. sotoraino deskargatzeko gunea).
PRADO kalea (ate zuria Arartekoaren sarreraren ondoan)

3.2 HORNITU BEHARREKO PAPERAREN KALKULUA

Aurreko ekitaldiak oinarri harturik, kalkulatzen da ezen, kontratu honen babesean, 500 orriko 5 pakete dituzten 400 kaxa paper kontsumituko direla urtean (gutxi gorabehera).

Eraikin bakoitzari % 50 banatuko litzaioke, gutxi gorabehera. Adierazitako unitateak gutxi gorabeherakoak dira.

3.3 HORNIDURAREN EZAUGARRIAK

Eusko Legebiltzarrak ESKAERA egin ondoren egin behar da hornidura. Eskaerak posta elektronikoz egin behar zaizkio enpresa esleitzaileari, honela:

Lehendabizi, 200 kaxako eskaera egingo da, bi eraikinen artean banatzeko, eta, ondoren, Eusko Legebiltzarraren beharren arabera.

Eskaerak eraikin bakoitzean behar bezala entregatu arte, enpresa esleitzailea izango da eskaeraren xede diren paketeen arduradun bakarra.

3.4 HORNITZEKO EPEAK

Entregak eskaera egiten denetik gehienez ere 48 orduko epean egin behar dira.

4.- HORNIDURA ORDAINTZEKO MODALITATEA

Hornitutako eskaera bakoitzaren faktura aurkeztu ondoren egingo da ordainketa, Administrazioaren oniritziarekin.

5.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Enpresek eranskinean agertzen den ereduari jarraikiz aurkeztu behar dituzte eskaintza ekonomikoak. Eredu horretan, 500 orriko paketearen prezioa jarri behar da, bai eta eskatzen diren gainerako datuak ere.

Gutxieneko betekizun teknikoei dagokienez:

1. Baso-ustiapen jasangarrietatik datorren zuntz birjinez eta/edo zuntz birziklatuz fabrikatutako paperaren egiaztapena: EBren ekoetiketa ekologikoa, zuntz birziklatuaren ehunekoarekin; Aingeru Urdina ziurtagiria; FSC birziklatua; PEFC; beltxarga nordikoaren ziurtagiria, zuntz birziklatuaren ehunekoarekin; eta produktuaren fitxa teknikoa (edo irizpide hori bermatzen duten beste batzuk).

2. Kalibrearen egiaztapena: UNE-EN ISO 534 araua edo baliokidea, edo produktuaren fitxa teknikoa.

3. Gramajearen egiaztapena: UNE-EN ISO 536:2013 araua edo baliokidea, edo produktuaren fitxa teknikoa.

4. Batere klororik gabekoa (TCF) izatearen egiaztapena: Aingeru Urdina ekoetiketa (edo irizpide hori bermatzen duten beste batzuk).

5. Produktuaren zuritasun-mailaren egiaztapena: paperaren fitxa teknikoa.

6. Inprimatzeko eta fotokopiatzeko egokitasun teknikoaren betekizunak bete behar ditu, Europako EN 12281:2003 arauaren edo baliokideren baten arabera.

Nolanahi ere, eskaintzen diren produktuen marka eta erreferentzia zehaztu behar dira eskaintza ekonomikoan.

Zehaztapen teknikoak betetzen ez dituen edo akastuna den materiala bere kontura erretiratu eta ordeztu beharko du kontratistak, Eusko Legebiltzarrak jakinarazten duenetik 48 orduko gehieneko epean.